



69 Zka. IRAILA 2017 SEPTIEMBRE Nº 69

Administrazio publikoko arduradunekin kontaktuetako errondarekin jarraitzen dugu komunikazio kanal egonkorrak ezartzeko asmoz, gizarte-zerbitzuetako sistema publikoa eraikitzen laguntzeko.

Administrazio publikoaren ardurapean dauden gizarte eta hezkuntza errekur-tsoetan profesional profilak bete ditzaten Gizarte Hezitzaileen Elkargoak zain egongo dela transmititu nahi izan dugu. Baita, gizarte zerbitzuen esparruan he-rritarren beharren artatzean, konstruktiboki, administrazioaren esanetara egongo gara.

Elkarrizketa guztietan, udalerrri mailan zein foralean, komunikazio eta elkarla-nerako kanal egonkorrak ezartzeko gogoia adierazi digute. Foroetan/batzorde sektorialetan bitartez, baina, baita zuzenean ere edozein partaidek egoki de-ritzonean.

Zerbitzu zorroaren dekretu berriak dakarren aldaketa eta ezarpen prozesua sor daitezkeen gertaera posibleei buruzko gure kezka azaldu diogu. Bilera guztietan instituzioen arteko elkarkidetzarako espiritu positibo/eraikitzaile ja-kinarazi digute: persona artatuen erritmo eta beharizanak errespetatzeko gi-zarte zerbitzuetako kudeaketan transizio progresibo egitea helburua dute eta dekretu honek epe ertainean EEAn gizarte zerbitzuetako sistema hazi eta egonkortuko delako desioa jakinarazi digute.

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



CGCEESek Madrilen irailaren 30ean CGCEESren X. urteurrena eta Gizarte Hezkuntza Nazioarteko Egu-na ospatu zuen.

Gure Elkargoko presidente eta presidenteordeak, Es-tatu mailako Elkargoetako hainbat ordezkariekin ba-tera, eginkizunean parte hartu zuten.

CPEESMko presidenteak eta Konstseiluko presidenteak hasierako ekitaldia bukatu ondoren, Universitat Operta de Catalunyako Gizarte Hezkuntzako programaren zuzendariak hezkuntza profesioaren eratzeari buruzko hitzaldia jorratu zuen.

Ondoren, Toni Julia Memorialaren IV Edizioko hautatutako lanak ezagutarazi zizkieten eta egileei saria eman zieten.

Azkenik, lanbidearen garapenaren eta pofesioa sustatzen duten erakundeen alde egindako ekarpenengatik CGCEESeko Ohorezko partaide akreditazioa eman zieten, besteak beste, gure elkargokide Iñaki Rodriguezi.

GHEE-CESPVREN BERRIAK

2017/07/03 Donostia-San Sebastianeko Gizartekintza saileko arduradunekin solasketa. Aitziber San Roman Gizartekintzako zinegotzia eta Teresa Barrenetxea Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariarekin elkarrizketa.

2017/07/10 Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Politikako Saileko teknikariek el-karrizketa. Patxi Leturia Indarkeria matxistaren emakume biktimak babesteko eta gizartetzeko zerbitziburua eta Patxi Agiriano Haurren eta nerabeen babeseko zerbitzuburuarekin elkarrizketa.

2017/07/10 GSESren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren gaineko jarraipena egiten duen Batzordearen lan bilera.

2017/07/17 eta 2017/09/20 Elkargoko Deontologia Batzordearen lan bilerak.

2017/09/20 Bizkaiko Aldundiko Gizartekintza Saileko arduradunekin berbaldia. Isabel Sanchez diputatua eta Gabin Azaola Administrazioako eta Gizarte Sustapenerako zuzendari nagusiarekin elkarrizketa.

2017/09/27,28 y 29 Partaidetzaren arloko esku-hartze ereduak esku-hartze sozialaren eremuan hiru lurraldetako hiriburuetan tailerrak egin ziren Bizkaiko 3. Sektoroko Behatokiaren lankidetzarekin.

2017/09/30 eta 10/01 CGCEESeko Ezohiko Batzar Nagusia gure Elkargoko presidente eta presidenteordeak larunbata arratsaldean eta igande goizean egindako bileretan parte hartu zuten.

Geroago, CGCEESek Katalunian U-1ean izandako gertaerei buruzko [komunikatu](#) bat kaleratu zuen.

2017/10/02 #EDUSODAY2017ko Gizarte Hezkuntza Nazioarteko Eguna Gure Elkargoak B-SIDE Elkartearekin batera Barakaldon eta KOKUK Elkarterekin Vitoria-Gasteizen jardun bana burutu genituen. Barakaldon "Gizarte Hezkuntza Eskolan" izenburupean eskolako irakaskuntza arloko pertsonak parte hartu zituzten eta eskola eremuan zuzenean, edo eskola denboraz kanpo eskolarekin harremana duten gizarte hezkuntzako profesionalak, ere parte hartu zuten. Esku-hartze proiektuak eta ikerkerta aurkeztu ziren. Hizlari batzuk zuzenean aurkeztu zuten eta beste batzuk bideoaren bitartez. Gazteizko jardunaldia eskolan ere oinarritu zen. KOKUKeko partaideek autonomia eta elkaratasuna lortzeko alternatibo eta pozgarri diren eremu konpentsagarrien bitartez gizarte hezkuntza kokurrikular programa aurkeztu zuten. Berritzeguneko profesional batek gizarte ehezkuntza ekintzak hezkuntza sisteman txertatuta egon beharko litzatekela esan zuen. Gasteizko Legebiltzarrean Gizarte hezkuntza esku-hartzearen aldeko ekimen politikorik ez dagoela eta agertzea beharrezkoa dela Legebiltzarkide batek aipatu zuen.

Gure Elkargoak beste Elkargoekin eta CGCEESkin berarekin batera aurtengo izenburupean "Gizarte Hezkuntza= pertsonetikiko konpromisoa" elkartu gara.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

TOKIKO EREMUAN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ETA PSIKOSOSIAL ARLOETAN ESKU-HARTZE LANA EGITEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO HAINBAT ZEHAZTAPEN. Zerbitzu Zorroa eta Prestazioak. 1.3 zerbitzua 185/2016 dekretua

Gizarte eta Hezkuntza Alorreko zein Alor Psikosozialeko Esku-hartze Zerbitzua (Zorroaren 1.3 zerbitzua, 185/2016 Dekretua) ezartzeak aldaketak ekarriko ditu abian zeuden programetara; horretarako, artikulutxo honek hausnarketarako laguntza izateko xedea du, udalerrri mailan gizarte eta hezkuntza arloan zein arlo psikosozialean esku-hartze zerbitzuen bilakaerari buruzko hausnarketa egiteko xedea. Horretarako, hainbat **KONTSIDERAZIO** egingo dira zerbitzuaren **eredu bateratu eta egokitu** baterantz iriste aldera.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak Euskadiko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruz eginiko V. Txostenean, Eusko Jaurlaritzaren enkarguz, zerbitzu honi buruzko artikulua monografiko bat egin genuen, zerbitzuaren definizioaren eduki hau jasotzen duena, modu zabalagoan eta sakonagoan. Elkargoko buletin honen bitartez, ideia nagusiak aurkez ditzakegu eta, gehiago sakondu nahi izanez gero, txosten horretara jotzera animatzen zaituztegu. www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8350/V_Informe_CVSS.pdf?1467805283)

1.- Zerbitzu Zorroaren bilakaera aukera gisa ulertzea komeni da, egungo programen berrikusketa egiteko eta bertan hobekuntzak eta aldaketak apurka-apurka egiten joateko.

* Errealitatera, lurraldera, egokitutako zerbitzu bat eratzea, adostua, eta beharrezkoen doitu, harreman ereduak berreskuratzen dituen. Gainera, egungo programak dibertsifikatu-ko lirateke eta modalitate berriak erabiltzen hasi.

2.- Beharrezkoa da denboran zehar hainbat formatutan eta udalerrri askotako gizarte zerbitzuetan gizarte eta hezkuntza arloan (eta arlo psikosozialean) esku-hartzeko zerbitzuek egin duten ibilbidea aitortzea.

* Horietako gehienek dagoeneko lantzen dituzte gizarte eta hezkuntza arloko edota arlo psikosozialeko esku-hartze zerbitzuak edo programak, eredu desberdinak erabiliz (kale hezkuntzako programak, familiar esku-hartzekoak...); horrela, hasita dauden prozesuei jarraipena emanez ezarri behar da Zerbitzu berria.

3.- Une ezin hobea da esku-hartzea zorrozki pertsonen eta komunitatearen beharrezkoen doitu antolatzeko; horretarako, beharrezkoen definizioarako eta profesionalen bertan duten partaidetzarako prozedurak berrikusi beharko dira.

* Hau da, behaketa eta diagnostikoa ahalbidetuko duten espazio eta faseak definitzen dituzten metodologiak prestatuko dira, fase desberdinetan jarduteko: behaketa, zailtasunen identifikazioa, pertsonak euren inguruneetan aztertzea eta beharrezkoen zehaztea.

4.- Legeak pertsonen beharrezkoen erantzuna ematearekin lotzen du Zerbitzuaren jarduna, ahalik eta gehien doitu, eta, egokitze zorrotz horretan oinarritutako artatze ereduak (eta esku-hartze metodoak) definitzea proposatzen du; horretarako, pertsonaren ohiko ingurunean diziplina arteko egitasmo bat prestatuko da, eta erreferentziako profesional baten erantzukizunpean jardungo da.

* Gizarte ongizatea ulertzeko, gizarte zerbitzuetan gainerako artatze zerbitzuak barneratu

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

behar dira.

* Printzipio batzuk ezartzen ditu: gizarteratzea eta autonomia, helburu gisa; egoera bakoitzaren diagnostiko berezitua; gizarte akonpainamendua; ikuspegi komunitarioa

5.- Esku-hartzearen dibertsifikazio eta irismen handiagoa, bai eta orain arte lehen mailako artatzean gizarte eta hezkuntza arloan arreta jasotzeko modukoak ez zirela pentsatu denentzat ere

* Indarrean dauden modalitateen irismenaren dibertsifikazioa eta orain arte nahikoa artatuak izan ez diren hartzaileak barnean hartuko dituen gizarte eta hezkuntza arloko erantzun berrien diseinua eta lanketa.

6.- Metodologiak garatu eta indartu, familia, talde, banako eta eremu irekian esku-hartzeko markoan.

* Pertsona jarriko da esku-hartzearen erdigunean, esku-hartzeko harreman espazioak sortuko dituzten eredu eta metodologiak zainduko dira, aldaketa xede duten hezkuntza prozesuak ahalbidetuz

* Familia, talde, banako eta eremu irekian esku-hartzeko markoak, hainbat modalitatetan: orokorra (famili esku-hartzea, eremu irekian, eskola motibaziorako); pertsonen zailtasun objektibo zehatzago batetik erantzuteko asmoa dutenak (jarduneko bizimodurako urratsean, eskola absentismoan, giza taldeei laguntza emateko, banako edo familiako laguntza psikologiko); arreta komunitate osoan jartzen duena (komunitarioa)

7.- Ikuspegi komunitarioa indartzea, araudiak eskatzen duen moduan, zerbitzua komunitatearen berezko kulturaren eta metodoen ikuspegiko elementuak oinarri hartuta emanda

* Orokorrean gizarte zerbitzuarenak berarenak diren eta, zehazki gizarte eta hezkuntzako zerbitzuek duten dimentsio komunitarioa berreskuratzea; izan ere, askotan garrantzirik gabeko plano batera igaro da dimentsio hori; pertsona bakoitza bere gizarte, kultur, ekonomia eta bizikidetzaren ingurura egokitu dadin erraztuko da, 12/08 legediari lotuta, zerbitzu eta prestazio guztietan, ikuspegi eta eredu gisa, ikuspegi komunitarioa ezartzen baitu.

* Komunitatea da esku-hartzearen xedea eta honen garapena ere helburua da zerbitzua-erentzat: gizarte aldaketak sustatuko dira, gizarteratze eta partaide-izate ikuspegitik bizikidetzaren markoaren eraldaketara bideratuta.

8.- Lurraldean lanean diharduten gainerako baliabide eta zerbitzuekin harreman koordinatuak, ardurakidetzan oinarrituak; izan ere, gainerako zerbitzu sistemak eta eragileak beharrezkotzat hartuko dira Zerbitzuak burutu beharreko lanetarako

* Esku-hartzean, pertsona eta kolektibo hauen egokitzapenean aurrera egiteko, erantzukidetasuna bermatuko da, lurraldeko gainerako baliabide eta zerbitzuekin koordinatuz.

* Koordinazio sistemak eratzea oinarritzkoa da detekziorako (lankidetzaren bidez), esku-hartze egitasmoak lantzeko (ataza osagarriak, erkatzea) eta espazio komunitarioa garatzeko.

9.- Gizarte eta Hezkuntza Arloko eta Arlo Psikosozialeko Zerbitzuak gizarte zerbitzuen marko bakarrean kokatzen du bere jarduna; horrela, lehenik eta behin, udal gizarte zerbitzuetan kokatzen du lana eta, era berean, bigarren mailako zerbitzuekiko harremanean

* Aztertzen ari gareneko Zerbitzu hau udal ardurapekoa da eta, esan dugun bezala, gizarte zerbitzuen testuinguruan eta indarrean dagoen legedian kokatzen da; beraz, saileko ardu-

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

radun organikoa izango da hura ahalbidetzeko arduraduna: plangintza, antolakuntza, baliabideak jartzea, besteekiko koordinazioa eta lan komunitarioa.

* Esku-hartze plana, gizarte zerbitzuen zeregina gauzaten deneko ardatza, gizarte eta hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartze zerbitzuko, bertako profesionalena (gizarte hezitzaileak, gizarte langileak eta psikologoak); udalerrri bakoitzeko errealitatera egokitu behar horretan, edukia, zereginak eta betearazpenak birpentsatu behar dira, eta profesional guztiek izan beharko dute prozeduraren fase guztietako partaide.

* Profesional guztiek hartzen dute parte eta zeregin jakin batzuk dituzte zerbitzuaren plangintzan, esku-hartze planean eta, horiekin batera, koordinazio teknikoko zereginak litzuzkeen profesional bat ere egon beharko luke.

* Esku-hartze taldearen egonkortasuna oinarrizkoa da aurrera egiteko, eta kontratazio baldintza onak (lan jardunaldiak, gizarte esku-hartzeko lurralde hitzarmenak) talde-lana eta laguntza teknikoak, prestakuntza eta euskarri emozionala bermatu beharko litzateke.

* Esku-hartzeak lehen mailako artatzetik bigarren mailakora igarotzeko prozesua zorrozki zaindu beharra dago: pertsona eta bere prozesua erdigunean kokatu beharko dira, eta osoko artatzea -ez zatikatua- bermatu beharko da, norberaren egoerei aurre egiteko erantzun azkarra emateko baliabideak ditugula.

* Lehenengomailako eta bigarren mailako artatzearen arteko fluxuaren eta harremanen hobekuntzak erraztu egiten esku-hartzeen koherentzia eta bermatu egiten du jarraitasuna.

Hemen aurkezten diren ideiak Gipuzkoako Osabidezko Hezkuntzako Partzuergoaren (Gizarte Politika - Gipuzkoako Foru Aldundia eta Hezkuntza - Eusko Jaurlaritza) markoan definitu dugun ereduak dira, hori baita indarrean dauden programak 1.3. Zerbitzuak zehaztutako eredu baterantz igarotzeko aholkularitza teknikoko prozesuen lanketa; izan ere, orain arte, Gipuzkoako sei udalerritan ari gara lanean hiru gizarte hezitzailek osatutako talde bat (Fermin Martin, Ainhoa Martin eta neu, artikulua hau sinatzen duen hau): lan taldean, gizarte hezitzaileak, gizarte langileak eta udal sailtako bertako programa eta zerbitzuen arduradun teknikoak daude sartuta.

Jesus Otaño Maiza
8 zenbakidun elkargokidea

DOKTOREGO-TESIAK

Gizarte hezkuntzarekin lotutako doktorego-tesiak aurkeztu dituztenek euren lanen laburpena bidal diezagukete (gehienez 400 hitz) gure Elkargoaren medioetan argitaratzeko, atal honetan erakusten den lehenengo tesiak duen formatua erabiliz.

Oraindik defendatu ez bada, irakurketa noiz eta non egingo den esan eta, ondoren, lana argitaratuko genuke.



DOKTOREGO-TESIAREN EGILEA: MARTA RUIZ NAREZO

DOKTOREGO-TESIAREN ZUZENARIAK: ROSA SANTIBAÑEZ GRUBER Y TERESA LAESPADA MARTINEZ

DOKTOREGO-TESIAREN IZEN BURUA: NERABEENGANAKO JOKABIDE ARRISKUTSUAK. ARRISKU FAKTOREAK ETA BABES FAKTOREAK

DOCTOREGOA: HEZKUNTZA BERRIKUNTZA ETA BIZITZA OSOAN ZEHAR EGITEN DEN IKASKUNTZA DOKTOREGO

UNIBERTSITATEA: DEUSTUKO UNIBERTSITATEA. BILBO.

DEFENTSA DATA: 2017/04/28

DOKTOREGO TESIAREN LABURPENA

Ikerketa honek nerabegaroko jokabide arriskutsuak aztertzen ditu. Garaiari lotzen zaion problematikotasuna eta honen inguruan gizartean sortu den alarmaren ondorioz, hazkuntza eta garapen arloan garai korapilatsutzat jotzen da. Nahiz eta ematen diren jokabide arriskutsu gehienek kutsu esperimental nabarmena izan, hauetariko batzuk arrisku-interakzioak adierazten dituzte eta denborekin kroniko bihurtzeko aukera eta heldutasunean garatzen jarraitzeko posibilitatea dute. Ikerketa honetan, nerabegaroen ematen diren jokabide arriskutsuei buruz historian zehar eman diren eredu eta argibide-teoria nagusien buruzko ibilbide bat egiten da, dimentsio anitzeko eta konplexu moduan izendatzen diren teoriak ikerketaren oinarri teoriko modura finkatuaz. Gaiaren konplexutasun eta dimentsio aniztasuna aintzakotzat hartu ondoren arrisku faktoreetan eta babes faktoreetan sakontzen da. Bai nerabea berarekin zerikusia duten faktoreak, bai eta inguruarekin lotura dutenak ere aztertuz, hauen artean funtsezkotzat jotzen dira: kidekoen taldearen eragina, ikastetxea, familia eta komunitatea bera. Ondoren, aztertutako nerabe-jokabide arriskutsu bakoitzaren ikuskapena egiten da, terminologia, jatorriari dagozkion datuak eta hauen definizioak azalduaz. Jarraian azterketa sakonago bati ekiten zaio, bai estatu mailan baita autonomia mailan ere, aipatutako jokabide arriskutsu hauek duten intzidentzia adieraziz.

Diseinu kuantitatiboa duen doktoretza-tesi honen helburu nagusia, jokabide arriskutsuak ikuspegi konplexu, global eta sistemikoaz behatzea da. Aztertu diren hainbat jokabide arriskutsuren intzidentzia deskribatu nahi da (jokabide antisoziala, bullying eta cyberbullying jokabidea, bikote harremanetan indarkeriazko jokabideak, mendekotasuna sortzen duten jokabideak, sexu jokabide arriskutsuak eta elikadura jokabide arriskutsuak), ikerketaren ardatz egituratzaile modura, generoa eta heziketa-ibilbidea aldagaiak hartuz. Gainera, hainbat jokabide arriskutsuren arteko interakzioa aztertu nahi da, bai eta pertsona, familia eta ikastetxe mailako aldagaien arabera behatu diren interakzioak ere. Hauek, 2013ko abenduan egindako neurketetatik ateratako datuen arabera (N=462 lagun) dira. Honez gain, bi neurketen artean zer nolako bilakaera eman den identifikatzeko saiakera ere egin da, ikerketaren zati bat luzetarako ikerlan modura kokatzen baita. Lagina 2014ko ekainekoa da, N=432 lagunekoa.


Ikerketa honetatik ateratzen den ezagupenak, nerabeekin egin beharreko gizarte-heziketako esku-hartzearentzat hainbat ondorio eta gomendio eskaini eta adingabeekin egin beharreko esku-hartzeetan ikuspegi sistemikoa kontutan izateko beharra azpimarratzen digu. Gainera, etorkizuneko ikerketa lanak gidatu ahal izango lituzkeen informazio esanguratsua eskaintzen digu.

INTERESGARRIKOAK

#DiaES 2 d'octubre,
Dia Internacional de l'Educació Social**Carnaval de blogs 2017:**
"Els reptes de l'educació social
en temps de la globalització"

#Edusoday2017

#thefinestjobintheworld

**Retos de la educación social en tiempos de globalización** Fernando Fantova**Nº 25 Los retos de la educación social en tiempos de globalización**Debajo de la página verás una caja con la leyenda email@aquí para suscribirte y que puedas incluir tu email y mantenerte informado de las novedades de RES de EDUSO.**Juegos para disolver rumores. Manual actividades antirumores para personas jóvenes = Zurrumurrak deuseztatzeko jokoa. Gazteak - zurrumurrak deuseztatzeko estrategia jardueren eskuliburua.** Bilbao, Ayuntamiento de Bilbao, 2017, 73 p.REVISTA
DE EDUCACIÓN
SOCIAL**El número 26**, que se publicará en enero de 2018, estará dedicado en su tema monográfico a reflexionar sobre**"Educación Social y Trabajo Social, un encuentro necesario".****La situación de la Infancia y la Adolescencia en Euskadi. Hacia un pacto vasco por la Infancia 2017** En Euskadi cada año se publican diferentes análisis acerca de la situación de la infancia y adolescencia. Desde UNICEF Comité País Vasco hemos querido sumar una nueva visión de las estadísticas, en clave de **derechos y bienestar infantil**, porque detrás delas cifras, detrás de los porcentajes, hay personas, y se halla **el presente y el futuro de Euskadi**: los niños, niñas y adolescentes que viven en nuestra comunidad y que suponen un 16,5% de toda la población**URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.**